

## OTSOA ETA TXERRIAK

**NUN ?** Leku zabal batean.

**ZEREKIN ?** Mozorroekin (Otsoa, txerriak)

**KANTUA ? :** *Norat zoaz Txerri-Kutin*      *EDO*      *1.2.3 Otso beltz lehen,*  
*Kurrin kurrin.*      *Mendi gainean ziren omen,*  
*Isatsa borrobil eta fin,*      *Orai nun dira hek ibiltzen,*  
*Ipurdia berriz pottolin,*      *Ez baititut aditzen hemen*  
*Kurrin kurrin, kurrin kurrin.*      *OSKORRI)*  
(Takkolo, Pirritx, Porrotx)

**TALDEA ?** Edozoin haur kopurua.

**JOKOA :** - Haurrek ingurutxo bat osatsen dute eta otsoa erdian dago.  
- Denek kantatzen dute.

- Batek galdegiten dio otsoari:

- “ **Otsoa, zer egiten duzu ?**” edo “**Otsoa, zer ari zira?**”

- Otsoak erantzuten dio:

-“ **Lo egiten dut**”.-

Gero, berriz hasten dira haurrak ingurutxoan ibiltzen eta kantatzen.

Eta beste haur batek galdegiten du : “ **Otsoa, zer egiten duzu/ zer ari zira?**”

Orduan otsoak erantzuten du : “ - **Atzartzen naiz,**”..... “ **Jeikitzen naiz,**” ...”**Garbitzen naiz**”,...” **Beztitzen naiz**”,...”**Orai goxe naiz, txerri bat janen dut.**”

Haur guziak eskapatzen dire. Otsoak txerri bat harrapatzen du.